

Lehen Mundu gerlako euskal presoen grabaketak (1916-1917)
Prusiako Komisio fonografikoaren artxiboak (Alemania)
Transkripzio ortografiko eta fonetikoak

Dokumentuen formaren eguneratze eta bertsio elektronikoen egile : **Jasone Salaberria**.

Jasone Salaberria, 1952ko uztailaren 18an sortua Ermuan (Bizkaia), Euskal Ikasketetan Doktore da (Bordale, 1998). Euskara irakasle Seaskan eta urte anitzetan IKER Euskara eta euskal testuen ikerketa-zentroko ikerketa proiektuetan partaide (HIPVAL, Norantz, Iparrahotsa, ACOBA, Hiruele).

--

Artxibo-funtsen eranskinetan dauden eskuizkribuen bertsio elektronikoa egin ondoren Berlingo dokumentuetako testuak diren horretan errespetatuz, testu horien egungo arau ortografiko (euskalkien / batuaren estandarrena) eta fonetikoetara (IPA) egokitu ditu. Jatorrizko eskuizkribuen transkribaketek J hizkia daramate dokumentuaren kodeari eratzikia, egokituak izan diela adierazteko aldiz, E hizkia eratziki zaie.

Adibidez, Pierre Ascarateil-en “*Igaran merkhatian*” soinu-artxiboak baditu jatorrizko bere eskuizkribu ortografiko eta fonetikoak, zeinak hatzamatzen diren kode hau duen dokumentuan : Souletinisch __Frankreich__ Liedtext - PK 485_2_J

Eskuizkribu gehienek jatorrizko bertsio ortografiko eta fonetikoak balin badute ere, bada eskuizkriburik ez duena. Adibidez, Jean-Noël Irigoyenen “*Erbiaren istorioa*”k soinu-artxiboa baino ez du. Beraz, soinu-artxibo horri dagozkion transkribaketa ortografiko eta fonetikoak, hurrenez hurren, batuan eta IPA alfabetoan emanak dira dokumentu bakarrean : *Labourdinisch __Frankreich__ Erz_hlung* - PK 11-2-3_E

Jatorrizko fonetikazko eskuizkribuek lagungarri izanik ere transkribaketa fonetiko eguneratuen sortzeko, grabaketen kalitateak zaildu egiten du fonemen hainbat ezaugarri akustiko bereizteko. Batzuk aipatzeagatik, igurzkarietan, hainbatetan ez da argi bereiztea hobikari lepokari ahoskabe [ʃ], hobikari apikari ahostuna [z̥], hobikari lepokari ahostuna [ʃ̥], hortzobi ahostuna [z], erretroflexu ahostuna [z̠] ala erretroflexu ahoskabea [ʃ̠] den adibidez. Edo bokalen arteko edo ahostunen arteko herskari ahostunak [b, d, g], [β, ð, γ] igurzkari/hurbilkari bilakatzen diren. Bistan dena grabaketaren kalitatea eta lekukoaren ebakeraren arabera direla duda anitz.